

**Jardunaldiak:**

**EUSKADIKO IJITO HERRIA: ANIZTASUNAREN ALDE,  
DISKRIMINAZIOAREN AURKA.**

Vitoria/Gasteiz, 2006ko azaroaren 14a eta 15a

**AURKEZPENA**

Euskadin, 14.000 lagun inguruk osatzen dute ijito-komunitatea, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 6. Zehazki esanda, kalkuluen arabera 8.000 Bizkaian bizi dira, zati berdinetan banatuta Bilboren eta Bilbo Handia deritzonaren artean, 3.000 inguru Araban, batez ere Gasteizen, eta 2.000-2.500 inguru Gipuzkoan bizi dira, batez ere Donostiako, Irungo, Errenteriako eta Hernaniko udalerrietan.

Errealitate horren aurrean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu zion 2004ko azaroaren 16an onartutako Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Plana, Euskadin bizi diren ijito-etniako lagunen bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea eta gizarteratzea hobetzeko eta lagun horiek eskubideak eta betebeharrak baliatzeko sustaturiko plana.

Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritza osatzen duten sail gehienek parte hartu dutela planaren lanketan, baita Euskadiko ijito-elkarte eta euskal ijito-komunitatea osatzen duten lagun guztiakin lan egiten duten elkarte guztiek ere, betiere EAeko Ijito Kontseiluan ordezkaritza dutenak.

Gogoeta kritiko bat ere egin genezake plana onartu zenetik bi urte betetzen diren honetan, herritar guztiek Euskadiko ijito-komunitatearen egiazko egoerari buruz duten ezagutza areagotzeko, ijitoak markatzen dituzten aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko, haiek zerbitzuak baliatzeko aukera edo haiek gizarteratzea eragozten duten oztopoak kentzeko eta gizarte-bizitzan duten partaidetza areagotzeko onartu ere, eta gainera ekintza ugari biltzen ziren hainbat esparrutan, hala nola kulturaren, gizarte-partaidetzan eta elkarbizitzan, hezkuntzan, gizarte-gaietan, gizarteratzean eta enpleguan, osasunean, etxebizitzan eta justizian. Izan ere, Eusko Jaurlaritza osatzen duten sail ia guztiak neurri handiagoan edo txikiagoan inplikatu dira planaren lanketan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila buru dela.

Aurrera eramandako neurri zehatzen artean azpimarratzekoa da ijito-erakundeek auzo pobreenetan eginiko lana zubi bat ezartzeko ijito-komunitatearen eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen artean, sentsibilizazio-kanpainak egitea ijito ez den komunitatearen eta ijito-komunitatearen artean beren arteko erlazioak bultzatzeko, plan bat lantzea ijito-etniako adingabeak erabat eskolaratzeko edo sustapen publikoko etxebizitzan parke txiki bat sortzea kasurik premiazkoenei erantzuteko.

Horretaz gain, Planaren koordinazioak eta bultzadak ahalbidetu digu administrazioaren eta ijito-erakundeen arteko hurbiltze-prozesua ikustea, kontseiluetan, jardunaldietan eta telebista-programetan lan eginez, azterlana prestatuz eta ezarritako helburuak aurrera eramateko esfortzua konpartituz, eta egiaztatu dugu nola ari diren prestatzen belaunaldi berriak erronka berrietarako, hala nola hizkuntzarekin, baita teknologia berrietako prestakuntza eta emakumea lan-merkatuan sartzea ere, bere nortasuna prozesu horietara eta bizitza ulertzeko bere era propiora asimilatuz.

Egungo diskriminazioak ezin ditu oraindik ere kultura-alderdiak izan aitzakiatzat. Antropologiak erakusten digunez, diskriminazioaren arrazoiak kultura-ulertezintasunei zor zaizkie, baina bestearen, desberdinaren, onarpena eta tolerantzia benetan eraginpean hartzen dituztenak alderdi askoz ez ere bistakoagoak dira, nahitaez desberdintasun sozioekonomikoei loturikoak.

Horregatik, akats bat da, eta diskriminazio bat berez, diskriminazioaren gaia aipatzea adina, generoa, etnia eta aukera sexuala direla-eta faktore erabat kulturala edo soziala izango balitz bezala, "gizarte-arloaren gunetik" konponduko litzatekeena. Errealitate zatitua eta zatikatzailea dugu konpromiso politikotik beretik ikusita, gerora herritarren jarreretan isla izaten duena.

Eta amaitzeko, herritartasuna aipatu nahi dut funtsezko faktoretzat gizarte inklusiboan aurrera egiteko. Ezinbestekoa da sektore guztien konpromisoa, batez ere erabakitzeo ahalmena dutenena, politikologoena, ekonomistena, legegileena, eta abar.

Izan ere, uste dugu ezin garela horretan gelditu, gure egitekoa talde minoritarioetako kide diren lagunek biztanleriaren gehiengoak dituen herritartasun-eskubide eta -betebehar berak izatearen alde borroka egitean datza, eta horretarako gure aurreiritzi eta itsumenduetatik borroka egin beharra dago. Oinarri sozioekonomiko sakonak dituen gaitzespena dago gure artean. Klaseen arteko tentsioa, aukera-desberdintasuna, eta aberastasunagatiko eta posizioagatiko lehia hainbat argudioren atzean ezkutatu dira, guztiak ere alderdi ia genetikoaren erreferentzia egiten dutenak, hala nola nolabaiteko aurredeterminazio bat, diskurtso horren eragile nagusi direnen erantzukizun oro saihesten duena.

Kontseiluko kide diren ijito-elkarteek adierazitako azaroaren 16a proposatzen dute, egun horretan onartu baitzuen Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskadiko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Plana. Ijito-elkarteen ustez haien historiaren une garrantzitsua da Ijito Herria zuzenean eraginpean hartzen duen Jaurlaritzaren plan baten lanketan parte hartu izana, baita Euskal Autonomia Erkidego osoa eraginpean hartu izana ere, planaren lanketan ijitoek eta ez ijitoek, administrazio

publikoek eta gizarte-ekimeneko elkarrekin batera parte hartu baitute. Izan ere, ijito-elkarrekin hain balio handia ematen diote gure autonomia-erkidegoan bizi izandako eraikuntza bateratuko eta plana idazteko akordioaren bilaketako prozesuari non Jaurlaritzaren Kontseiluan plana behin betiko onartu zen eguna nagusi den haienztat EAeko Ijito Herriaren Egun hori beste hainbat ospakizunetan —hala nola Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna— urtzeko aukerarekin alderatuta.

EAeko Ijito Herriak badu konfiantza plana baliagarria izango dela "ijito-biztanleriak gainerako herritarrekiko daukan desberdintasun-egoera gainditzeko", "bizitza publiko eta sozialean bere partaidetza bultzatzeko", "Ijito Herriaren ekarpenak gizarte guztiari jakinarazteko", "talde sozial eta kulturalen artean bizikidetzat hobea ahalbidetzeko", "ijito-elkarrekin mugimendua sendotzeko" eta "ijito-gutxiengoarekiko diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurka borrokatzeko". Hori guztia dela-eta, egunik egokiena azaroaren 16a dela uste dute: izan ere, egun horretan, Eusko Jaurlaritzak plan bat onartu zuen pertsona guztiek eskubide eta betebeharretan berdinak izan behar zutelako aintzat hartzea bultzatzeko, eta aintzat hartze hori alde aurretikoa da herritartasun arduratsua izateko aukerarekiko.

**Carmen Vicioso**  
**Gizarte Ongizateko Zuzendaria**  
**Eusko Jaurlaritza**